

Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak

Iñigo Beitia Zabala

Gizarte Antropologian graduatua

beitia100@hotmail.com

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. Jarraian duzuen ikerketa honetan ikertzaileak gazteek hitanoa zein balore eta usterekin lotzen duten jakin nahi du eta aldi berean Eskoriatzako kasu bat azaltzen saiatzen da non, azken honetan, gazteek hitanoarekiko hurbilpen bat egin duten. Hau da, gazteak hitanoa erabiltzen hasi dira lehen erabiltzen ez zutenean. Ikerketak beraz, kasu honen zergatia aurkitzen ere saiatzen da. Lana aurrera eramateko metodo kualitatiboa erabili da eta bertako teknika nagusia elkarrizketa izan da. Bost elkarrizketa egin dira hauek 18-30 urte bitarteko gazteen artean gauzatuz. Amaierarako hitanoa benetakotasunarekin lotzen dela ikusiko da eta gazteen artean bere erabilera “kutsatu” egin daitekeela. • *Hitz gakoak:* *Hitanoa, toka, noka, gazteak.*

Abstract. This research study aims to explore the values and beliefs that young people associate with the use of the familiar form of address in Basque. The paper also presents a case study located in the Basque town of Eskoriatza, in which young people have recently rediscovered this form of address. In other words, young people from Eskoriatza who did not use this form of address previously have recently started doing so, and this piece of research aims to explore the reasons for that change. The study uses a qualitative method, based mainly on the interview technique. Five interviews were held with young people aged between 18 and 30. The results reveal that the use of the familiar form of address in Basque is associated with authenticity, and its use among young people may be 'catching'. • **Key words:** *Familiar form of address in Basque, toka (familiar form when talking to a man), noka (familiar form when talking to a woman), young people.*

SARRERA

I Jarraian duzuen ikerketa nire gradu amaierako lana izan da. Berau Eskoriatzan dago finkaturik eta bertan gazteek hitanoarengana egin duten hurbilpena ikertuko da. Hau da, gazte batzuk hitanoa zergatik hasi diren “erabiltzen” -erabilera hau modu oso txikian bada ere- nahi da ikertu ondorengo lerroetan.

Hasi aurretik eta zehazteko asmoz, ikerketan zehar “hitanozko hurbilpena” terminoa esatean hitanoa erabiltzeari egingo diot erreferentzia hitanoaren erabilera hau motz, luze edota formula simple edota konplexua den kontuan hartu gabe. Hau da, hitanoa ez erabiltzetik erabiltzera pasatzeari -modu txikian bada ere- egingo dio erreferentzia.

Hau esanik, ikerketaren elementu zentrala hitanoa eta gazteak dira. Bertan, Eskoriatzako kasua edukiko da kontutan non, batetik, gazte batzuek zergatik egin duten hitanozko hurbilpena herri honetan nahi den aztertu, honi erantzun bat aurkitu nahiean eta, bestetik, gazteek hitanoarekiko zein ideologia duten -uste, balio eta jarrera- nahi den azalerratu baita ere. Bi hauek dira aztertuko diren elementuak.

Gaiari dagokionean esango dut berau aspalditik neukala buruan bueltaka esperientzia pertsonala izan delako hein batean eta inguruan bizi izan dudalako baita ere. Egoera azaltzearren ni eskoriatzarra naiz eta gazteen artean ez da hitanoa erabiltzen. Hala ere, azken denboran -ni konturatu naizenetik behintzat- gazte batzuk -mutilak eta 18-30 urte bitartekoak- hitanozko hurbilpen bat egin dute, hau oso txikia baldin bada ere. Hau da, hitanoa sartu dute beraien mintza praktiketan, formula simple eta esaldi tipikoak izan arren, aurretik inoiz erabili ez dutenean. Honekin, hala ere, ez dut esan nahi beraien elkarrizketak hitanoz direnik gaur egun baizik eta oso noizean behin hitano esaldi solteak entzun ahal direla kaletik gazte hauen ahotan.

Ikusi dudanarengatik eta zerbait gehiago sakontzearren, normalean lagun artean eta eremu informalean ematen dira hitanozko hurbilpenak, lagunekin tabernetan egotean edota adar jotze bat egin nahi denean adibidez.

Egoera honek atentzioa ematen zidan eta ondorengo galdera pentsatu nuen: zergatik hasten dira gazte batzuk hitanoa erabiltzen -gure kasuan- formula sinpleen bidez ordurarte beraien mintza praktiketan inoiz presente egon ez denean? Zerk bultzatzen ditu hitanoa erabiltzera hurbilpen txiki horien bitartez?

Ikerketaren elementu zentrala hitanoa eta gazteak dira. Bertan, Eskoriatzako kasua edukiko da kontutan non, batetik, gazte batzuek zergatik egin duten hitanozko hurbilpena herri honetan nahi den aztertu, honi erantzun bat aurkitu nahiean eta, bestetik, gazteek hitanoarekiko zein ideologia duten.

Zergatik hasten dira gazte batzuk hitanoa erabiltzen -gure kasuan- formula sinpleen bidez ordurarte beraien mintza praktikan inoiz presente egon ez denean?

Hitanoranzko hurbilpen bat egon den arren derrigorra da aipatzea hau gazte batzuetan ematen dela soilik eta orokorrean esaldi batzutura mugatzen dela. Esan dudana bezala, jakintza ezagatik edo, beraien esaldiak formula sinpleak izan ohi dira eta askotan esaldi tipikoetara mugatzen dira. Ikerketan zehar beraz esaldi solte batzuen inguruan egongo ginateke hitz egiten. Azken hau azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zait gaizki-ulerturik ez egoteko. Hitanoz esan beharreko esaldia(k) esan ostean zukara -beste tratamendura- pasatzen dira, hau da, beraientzat ohikoa edo "betikoa" den tratamendura. Hitanoaren erabilera, beraz, ez dago errotuta gazteengan; berarenganako hurbilpen bat da, noizean behin hitanoz esaten diren esaldi batzuen bidez.

Hurbilpen hauek aztertzeaz gain, interesgarria iruditu zitzaidan baita ere gazteek hitanoaren inguruan duten ikuspuntua jakitea. Zerekin lotzen dute? Noraino ezagutzen dute? Zein jarrera dute berarekiko? Ikerketan, beraz, garrantzia izango dute gazteek hitanoari lotzen dizkieten uste eta baloreek. Gainera, hitanoak genero ikuspuntua dauka, genero desberdinketa bat egiten duen aldetik, beraz, puntu hau ere interesgarria iruditu zitzaidan lantzeko. Hau da, gazteek nola ikusten duten hitanoaren eta generoaren gaia.

Orain aipatutako informazio honekin ikusi daiteke ikerketa guztiz kualitatiboa dela. Aztertu nahi den fenomeno kuantitatiboki oso esanguratsua ez den arren, nire aburuz, kualitatiboki garrantzia dauka.

Ildo honi jarraituz ikerketan metodo kualitatiboa erabili da eta bertako teknika metodologiko nagusia elkarrizketa izan dela esango dut. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea lan hau egiteko ideia orain dela denbora batetatik neukala buruan, hein handi batean kalean ikusitakoarengatik. Honegatik, ikerketarako espreski behaketa egin ez dudana arren esan daiteke aurretiko behaketa txikien ondorioa dela ikerketa hau baita ere. Beraz, "behaketa" horiek eman edo ematen dizkidaten inpresioak ere kontutan hartuko dira ikerketan.

Esan bezala ikerketan elkarrizketek hartzen dute garrantzi gehien, hala ere, hauek egiterakoan teknika nagusi bezala *hiruko talde*¹ deiturikoa izan dut buruan abantaila eta arrazoi desberdinengatik. Hauetan elkarrizketatzaile bat dago eta berekin hiru pertsona elkarrizketatzen saiatzen da, non aldi berean eztabaida bat eman daitekeen baita ere hauen artean. Oso interesgarria zen niretzat elkarrizketatuek zituzten desberdintasunak ikustea eta hauei loturik eztabaidak sortzen baziren beraien posturak nola arrazoitzen zituzten jakitea, zein argudiorekin alegia.

Hau esanik ikerketan hiruko talde elkarrizketa bat egin dudala esan behar dut -bi mutil eta neska batekin- eta bestetik bi mutil batera elkarrizketatu ditudala bi hauek duten “bereziatasunarengatik”. “Bereziatasun” hau bi mutil hauek beraien artean beti hitanoan hitz egiten dutelako ematen da eta egoera berezi honi probetxua atera nahi izan nion biak elkarrizketatuz soilik. Adinari dagokionean elkarrizketatuak 18-30 urte bitartean kokatzen dira.

Bestalde, elkarrizketatuen generoa begiratuaz kuantitatiboki neskek baino mutil gehiago hautatu ditut, azken hauen artean ematen delako gehiago hitanorako hurbilpena eta erabilera -ikusitako eta irakurri dudaren araberak. Hala ere interesgarria eta beharrezkoa zen ikerketan niretzat neskek hitanoaren gainean duten ikuspuntua jakitea: zergatik ez duten hainbeste erabiltzen, nokaren inguruan galdetzeko...

Sarrera hau amaitzeko jarraian lanaren egitura nolakoa den azalduko dut. Lehenik, ikerketan erabilitako eduki teorikoa zein izan den azalduko da, ondoren, elkarrizketetatik lortutako datuak zeintzuk izan diren ikusiko da eta, azkenik, ikerketako ondorioak zeintzuk izan diren esango da.

1. IKERKETAKO OINARRI TEORIKOA

I

Ikerketa aurrera eramateko, zentzuzkoa den bezala, oinarri teorikoa erabili da. Jarraian beraz ikerketan zehar erabilitako autore desberdinen ideiei eta termino oinarrikoak azalduko dira gai sakontzeko.

1.1 Kokapen teorikoa

Ikerlan honetan eredu teoriko bezala Paula Kasaresek (2014) egindako ikerketa erabili da. Bere ikerketa eta gurean egon daitezkeen desberdintasunak desberdintasun eta salbuespenak salbuespen gure lanerako eredu teoriko erabilgarria planteatzen duelako izan da hautatua.

Kasarese ikerketak umeak dituen ardatzat eta euskararen jarraipena du aztergai. Bere ikerketarako eredu teoriko berri bat, paradigma bat, planteatzen du: *language socialization* edo hizkuntza sozializazioa izenekoa. Bere aburuz orain arte euskararen inguruan egindako ikerketa soziolinguistikoek hutsune batzuk izan dituzte eta paradigma honek hutsune horiek bete nahi dituela dio.

Paradigma honek sozializazioa prozesu jarraitua dela diosku. Ondorioz sozializazioa ez da inoiz amaitzen, haurtzarora mugatu gabe, eta heldu izatean baita ere rol, estatus edota jardura berrietan sozializatzen ja-

Hizkuntza sozializazioak hizkuntza ikastea baino gehiago, kulturaren eraginak hartzen ditu kontutan giza garapenaren alderdi guztietan. Laburtzearen beraz, hizkuntza sozializazioa prozesu dinamiko, elkarreragilea eta bizitza osoan dirauena da non inguruneari loturik dagoen.

**Transmisioaren
paradigma, goitik
beherako bezala
ikusten denez,
guraso eta
seme-alaben
harremanetara
mugatu da soilik.
Hala ere -
sozializazio
esparruak
familiaratik kanpo
ere ematen
direla.**

rraitu dezake. Honekin beraz, hizkuntza sozializazioak hizkuntza ikastea baino gehiago, kulturaren eraginak hartzen ditu kontutan giza garapenaren alderdi guztietan. Laburtzearen beraz, hizkuntza sozializazioa prozesu dinamiko, elkarreragilea eta bizitza osoan dirauena da non inguruneari loturik dagoen. Honekin batera paradigma honek ikuspuntu holistiko bat nahi du eduki, subjektuen historiari garrantzia emanez eta sozializazio elkarreraginen azpian ideologia eta botere harremanak antzeman nahiean.

Beraz, hizkuntza sozializazio prozesua eragileaniztuna eta elkarreragilea dela argi geratu da, belaunaldien arteko (goitik behetiko nahiz behetik goitiko) elkarrekintzetan ez ezik adinkideen arteko (ezker-eskuineko) harremanetan ere ematen dena.

Ondoren, paradigma honek bete ditzakeen hutsuneen gainean puntu batzuk azalduko dira. Euskal soziolinguistikari transmisio kontzeptuak indar handia eduki du baina Kasaresek hutsune batzuk aurkitzen dizkio: *“kontzeptuak bere baitan duen ideia goitik beheitikoa eta noranzko bakarreakoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuinguru guztiak biltzeko egokia”* (Kasares, 2014, 27. orr.). Ondoren transmisioari egiten dizkion kritika batzuk azalduko dira ikerketa honetarako baliogarriak izango direlakoan.

Hasteko bere hitzak hartuko dira: *“Hiztunaren ama hizkuntza baino eraginkorragoak dira hiztun horrek hizkuntzarekin garatu dituen harremanak eta eratu dituen loturak”* (Kasares, 2014, 23. orr.). Pertsona batek transmisio zuzena eduki arren hizkuntza batean -euskarari demagun- hiztun honek izango dituen gogo-nahiak hizkuntza horrekiko -hizkuntza hori erabilteza adibidez- transmisioak ez du zuzenean ziurtatzen. Gogo-nahi hauek pertsona horrek dituen gizarte harremanek baldintzatzen dituzte -bere lagunak zeintzuk diren adibidez. Beraz, hizkuntzaren ezagutza hutsak -transmisio bidez jasotzen denak- hiztunaren gogo-nahien mende aurkitzen dira eta hauek bizitzan zehar dituen sozializazioen mende.²

Aurrera eginez, transmisio kontzeptuak ikerketak etxe edota familiara ere mugatu izan ditu. Hau da, transmisioaren paradigma, goitik beherako bezala ikusten denez, guraso eta seme-alaben harremanetara mugatu da soilik. Kasaresek (2014) hala ere -sozializazio esparruak familiaratik kanpo ere ematen direla onartuz gero- honakoa diosku: *“familiaratik atera eta hurbileko erkidegoari, gizarte sareei eta hizkuntzaren egoerari ohartzea ezinbertzekoa da”* (Kasares, 2014, 23. orr.). Bizitzan zehar pertsona batek duen inguruak -lagunak, eskolak, komunikabideak- eragina izaten dute

hizkuntz hautuetan beraz, familiatik kanpo ematen den transmisioa ere badaukagu eta kontutan hartzekoa da.

Azkenik, Kasares (2014) hiztunen agentzialtasunaren inguruan mintzatzeko da baita ere. Transmisioaren inguruan indarrean egon den ikuspegiak hiztunak “*hartzaile pasibo*” (Kasares, 2014, 25. orr.) balira bezala tratatzen dituela salatzen du. Hau da, badirudi hiztunek ezin dituztela beraien hizkuntz ohiturak aldatu bizitza osoan zehar. Berak aldiz, hiztunak aktiboak direla uste du, agentzia dutela esanez eta beraien mintza ohiturak aldatzeko kapazak direla baieztatuz.

Hemen azaldutako hiru elementu hauek, nik uste, kontutan hartzekoak dira eta lagungarriak izan daitezke ikerketan. Lehen ideia aipatzea derrigorra iruditzen zait, azken finean, norberak hizkuntzarekin daukan erlazioa delako garrantzitsuena. Gure kasuan aztertutako gazteak euskararekin duten erlazioa izango da. Bigarren ideia interesgarria da hitanoa -ikusitakoaren arabera- lagunaren artean erabiltzen delako eta beraz, lagunaren artekoa izateak etxetik kanpora begiratzea ekartzen du, transmisioa beste eremu batzuetan jarriz -lagunen artean kasu honetan. Azkenengo ideiak erakusten diguna da norberak bere hizkuntz hautuak egin ditzakeela eta gure ikerketara ekarriz, hitanoari egindako kontaktua izango zen ideia honekiko lotura. Zergatik egin dute gazte batzuek hitanoranzko hurbilpen bat? Hurbilpen hori, nire aburuz, norberaren hautu bat izan daiteke eta hau ordurarte egondako mintza ohituren aldatzea bat izango litzateke. Hau da, hiztunak agentzia du bere hitz egiteko ohiturak aldatzeko.

1.2 Batua vs euskalkiak

Aurrera eginez, eta gaiz aldatuz, jarraian euskara batua eta euskalkien gainean hitz egingo da. Jakina den moduan egun euskara batua eta euskalkiek legitimitate maila desberdinak dituzte gizartean eta honetaz hitz egiteko Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla eta Urangak (2014) egin duten ikerketa hartuko da kontutan.

Ikerketak dio hizkuntza edo barietate linguistiko baten prestigio eta legitimitateaz hitz egiteko orduan -honek zein onarpen maila daukan alegia-, areago hizkuntza gutxituen inguruan gabiltzanean, bi balore ardatzen arabera neurtzen dela: benekotasunaren (authenticity) ardatza batetik eta anonimatoaren ardatza bestetik. Benekotasunaren balorea hizkuntza horrek bere inguruarekin daukan erlazioa da. Hau da, hizkuntz barietate bat -euskalkiak gure kasuan- benetakoa kontsideratzen da berau leku eta komunitate konkretu bateko hizkuntz bezala identifi-

Euskara batua eta euskalkiek legitimitate maila desberdinak dituzte gizartean.

Euskal hiztunen artean euskalkian hitz egitean edo hitz egiten jakiteak legitimitate gehiago ematen duela hitzun bezala.

Badira bizitza sozialean emandako bi aldagai funtsezkoak direnak hizkuntz tratamenduak ulertzerako orduan: boterea eta elkartasuna.

Botere hau ekonomikoki, sozialki edota kulturalki emana izan daiteke.

katzen delako. Anonimatoaren balorea aldiz, aurkakoa da, berau ez dagoelako sozialki eta lurralde batekin definiturik. Honakoa diote anonimatoaren inguruan: *“Es la voz de todos y de nadie en particular, característica que la hace adecuada como lengua oficial y lengua común”* (Ortega et al, 2014, 89. orr.). Gure kasuan anonimatoaz hitz egitean, logikoki, euskara batuaz hitz egiten ari gara.

Ikerketak aipatzen du euskara batuak daukan anonimatoa ongi ikusirik dagoela gizartean, praktikoa delako, baina benetan legitimatzen duena -botere eta onarpen gehiago daukana- benekotasuna da eta hau euskalkiek ematen dute soilik. Honek erakusten du euskal hiztunen artean euskalkian hitz egitean edo hitz egiten jakiteak legitimitate gehiago ematen duela hiztun bezala. Hemen identitatearen kontua ere sartu ahal izango zen -euskalkiek identitatea ematen diotelako hiztunari- baina hau beste gai bat da.

Hau esanik egungo euskal gizartean euskalkiek duten garrantzia kontutan hartzekoa dela esan behar da berauek direlako legitimitate handiena -eta identitatea aldi berean- ematen dutenak euskara batua oso praktikoa eta beharrezko hizkuntz ereduak izan arren.

1.3 Hizkuntz tratamenduak, euskara eta hitanoa

Orain arte lehenik ikerlana kokatuko den esparru akademikoa izan dugu hizpide eta ondoren euskalki eta euskara batuaren artean dauden legitimitasun maila desberdinak ikusi dira. Hemendik aurrera gure ikerketako gaien gehiago sakonduko da, hitanoaren inguruan hitz egin. Atal honetako informazioa Xabier Alberdiren (1993) da.


Euskarari, beste hizkuntza batzuetan bezala, hizketa-lagunari hitz egiteko modu desberdinak daude hau da, hizkuntz tratamenduak aurkitzen dira. Hizkuntz tratamenduak definitzeko bi elementu daude: izenordain-hautaketa eta hiztun-solaskidearekin hiztunak duen harremana. Harreman horren arabera izenordain bat edo bestea hautatuko da hitz egiterako orduan. Euskarari hizketa-lagunari erreferentzia egiteko lau tratamendu -hika, zuka, xuka eta berorika- aurkitzen dira.

Tratamendua aukeratzeko orduan beraz hiztun-solaskidearekin dagoen harremana kontutan hartzea baldintza derrigorra dela esan da. Harreman hau definitzerako orduan -elementu asko egon daitezkeen arren- badira bizitza sozialean emandako bi aldagai funtsezkoak direnak hizkuntz tratamenduak ulertzerako orduan: boterea eta elkartasuna. Tratamenduak bi aldagai hauen artean mugitu izan dira beti. Boterea

aipatzean “*pertsona batek botere edo aginpidea duela beste baten gain, beste lagun horren jokaera zuzentzeko edo kontrolatzeko gai den neurrian*” (Alberdi, 1993, 2. orr.) esan nahi da. Botere hau ekonomikoki, sozialki edota kulturalki emana izan daiteke eta beraz hauei, boterea dutenez, desberdin hitz egin behar zitzairen. Egoera honetan beraz boterearen aldagaiak erlazio asimetrikoak bultzatu izan dituela esan daiteke hizkuntz tratamenduei begira baina aldi berean berdinen artean elkartasunezko tratamendu simetrikoa egon da. Beste hitz batzuetan: “*Boterearena erlazio asimetrikoa baldin bada, elkartasunari dagokiona simetrikoa da*” (Alberdi, 1993, 3. orr.). Alberdiren (1993) adibideari jarraiki ondorengo egoera izango zen orain arte deskribatutakoa: T lagunarte bezala jartzen bada eta V jaso bezala esan daiteke berdinen artean T-T hitz egingo dela, boteredun berdinen artean V-V, baina boteredun eta ez-boteredun baten artean T-V. V ez-boteredunak boteredunari eta T boteredunak ez-boteredunari.

Hobeto ikusteko, ikus 1. irudia:

1. irudia: Tratamendua eta boterearen arteko harremana



Orain arte esandakoa Josu Ozaitak (2014) oso ondo azaltzen du ondorengo esaldian: “*Erdi arotik aurrera hizkuntzaren baitan moral bat sortzen da, gizartean eraturiko hierarkia eta estatus mailak indartzen dituen besteengandik bereiztuz eta boterea erakutsiz*” (Ozaita, 2014, 91. orr.). Badirudi, ikuspuntu diakroniko bat eman nahian eta Carlos Martinezen (1993) informazioan oinarrituz, antzina euskaran botere elementu hauek ez zeudela. Hala ere, beste hizkuntzetan bezala gurean ere botere elementu hauek sartu egin ziren, gizarteko desberdintasunak irudikatzen dituzten tratamendu desberdinen erabilaren bitartez. Honek, elkartasunezko euskararen berezko tratamenduaren (T), hau da, hitanoaren desplazamendu bat ekarri zuen bere erabilera kasu batzuetara mugatuz.

“Erdi arotik aurrera hizkuntzaren baitan moral bat sortzen da, gizartean eraturiko hierarkia eta estatus mailak indartzen dituen besteengandik bereiztuz eta boterea erakutsiz” (Ozaita, 2014, 91. orr).

**Hitanoa
simetrikoa da,
berdinen artean
hitz egiten da,
baina ondoren
badauzka
botereari
loturiko ohiturak
baita ere.**

Erlazio asimetrikoak hala ere, galtzen joan dira denboran zehar gizarte aldaketek bultzatuta, XX. mendean gehienbat, eta esan daiteke elkartasunaren semantika, simetrikoa, boterearenari nagusitu zaiola³. Gaur egun tratamendu asimetrikoa erabiltzen baldin bada gehien bat elkartasun- eza dagoen momentuetan erabiltzen da, botere desberdintasun batengatik beharrean.

Hala ere, hitanoaren erabileran, eta ondorioz euskaran, azaldutako azken hau oraindik ez da gertatu badaudelako botere semantika zantzuak, Ozaitak (2014) dioen bezala: “*Hikaren barrenak ikertuta ikus daiteke oraindik beste hizkuntzek garai batean zuten botere semantika izozturik geratu dela*” (92. orr.). Honen adibide jartzen du gurasoei hitanoan ez hitz egitearen ohitura edo, modu orokor bateagoan esanda, edozein gazteagok bera baino helduagoa denari hitanoan ez hitz egiteko ohitura. Hau errespetu falta handia baita. Hau da, ez-boterredunak ezin dio botere-dunari Tn hitz egin baizik eta Vn. Aldiz, helduek, botere-dunek, Tn hitz egin diezaiokete gazteagoei.

Beraz, hitanoan, eta ondorioz euskaran, presente daude aurretik aipatutako botere eta elkartasun semantika. Alde batetik hitanoa simetrikoa da, berdinen artean hitz egiten da, baina ondoren badauzka botereari loturiko ohiturak baita ere, Ozaitak (2014) adierazten duen moduan. Bestalde, ikusi da boterearen aldagaia sartu zenean euskaran tratamendu berriak sortu zirela eta hitanoaren erabilera kasu zehatz batzuetarako izatea mugatu zela.

1.4 Hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagaiak

Aurrera eginez, ondoren, hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagaien inguruan hitz egingo da. Edozein hizkuntz tratamenduk bezala hitanoa gehiago edo gutxiago erabiliko da aldagai batzuen arabera. Alberdik (1993) hamar aldagai hautatzen ditu, hala ere, aldagai guzti hauek ez dute garrantzi bera, batzuk bigarren maila batean kokatzen direlako. Hauexek dira aldagaiok: gaia (hizketa gaia), hizketaldiaren testuingurua, adina, belaunaldia, sexua, senidetasun maila, dialektoa, talde-kidetasuna, aginpidea eta sentipenezko elkartasuna.

Esan bezala, guztiek baldintzatu dezaketen arren, batzuk bigarren maila batean kokatzen dira eta hitanoaren erabilerari dagokionean derrigorrak, edo garrantzizkoenak, diren aldagaiak adina/belaunaldia, sexua, talde-kidetasuna eta sentipenezko elkartasuna dira. Ondoren hauetariko bakoitza aztertuko da.

Adina izango da hitanoaren erabileraren barruan agertzen den funtsezko aldagaietako bat. Hitanoa norberaren adinetik hurbil agertzen diren pertsonen hitz egitea izan da ohitura. Aurretik aipatu bezala, boterearen semantika agertzen da hemen non berdinen artean hitz egin behar den hitanoa. Hau da, adinez, edo belaunaldiz, “berdinak” direnen artean hitz egin behar da.

Aurrera eginez, oinarrizkoa den beste aldagai bat sexua da. Hitanoaren erabilera desberdina da neska edo mutil izan zeren eta, adibidez, sexu berekoen artean errazago ematen da hitanoa eta honen barruan gizonen artean gehiago ematen da emakumeen artean baino. Hala ere, gai honen inguruan aurrerago gehiago mintzatuko naiz.

Funtsezko beste aldagai bat elkartasun psikologikoa da, hau da, solaskidearekin dagoen hurbiltasun edo konfiantza maila. Hitanoa berdinen artean hitz egiten den tratamendu simetrikoa dela esan da, elkartasunari loturik dagoena, honen atzean, ez da ahaztu behar, konfiantza agertzen dela eta *“euskaldun askorentzat hika zerbait baldin bada, konfidantzazko harremanaren seinalea da”* (Alberdi, 1993, 13. orr.). Hitanoa ez da ezezagunen artean hitz egiten -orokorrean- aurretik esan bezala gaur egun elkartasun-etak ematen direnean sistema asimetrikoa erabiltzen baita. Hau esanik argi geratzen da aurrean dagoenarekin norberak daukan konfiantza garrantzitsua dela hitanoaren erabileran. Bestalde, euskarako tratamenduek ohiturazko izaera dute eta honek batekin edo bestearekin modu batean edo bestean hitz egitea baldintzatzen du azken hau kontutan hartzeko aldagaia izanik.

Azkenengo aldagai garrantzitsu bezala talde-kidetasuna agertzen da. Aldagai honek bi pertsona ezezagunen artean, eta ondorioz konfiantzarik ez dutenen artean, hitanoa erabili daitekeela erakusten du -ohikoa ez den arren. Adibidez, Alberdiren (1993) adibideari jarraiki, mendizaletasuna duten bi pertsona ezezagun mendian elkartzen badira beraien artean, konfidantzarik ez egon arren, hitanoan hitz egin dezakete biek konpartitzen duten zaletasun, eta ondorioz, -talde- kidetasun horregatik. Aldagai hau garrantzitsua da hitanoaren erabilera orokorraren aurka egiten duelako eta beraz kasu solte batzuk azaltzeko balio du. Hala ere, ezezagunen artean hitanoa erabiltzea ez da ohikoa.

Aldagai garrantzitsuenak azalduz, ondoren, hauen laburpen bat egingo da esanez adina, sexua eta hurbiltasun psikologikoa erabakigarriak direla hiketan aritzeko. Adina, edonori ezin zaiolako hitz egin, norberaren adinkideei soilik, sexua, ikusi den bezala, erabilera baldin-

**Hitanoa
norberaren
adinetik hurbil
agertzen diren
pertsonen hitz
egitea izan da
ohitura.**

Gazteek ez dute hitanoan hitz egiten egunerokotasunean baizik eta honenganako hurbilpen txiki bat egin dute.

tzatzen duelako eta azkenik hurbiltasun psikologikoa edo aurrean da goenarekiko hurbiltasuna beharrezkoa dela hiketarako.

2. DATUEN ANALISIA

Jarraian elkarrizketetatik lortutako datuak zeintzuk izan diren azalduko da. Datu hauek gaika daude banaturik non elkarrizketatuen bizipenak eta nik egindako behaketek osatzen dituzten.

Bestalde, eta gogoratzearren, gure kasuan gazteek ez dute hitanoan hitz egiten egunerokotasunean baizik eta honenganako hurbilpen txiki bat egin dute. Jarraian beraz, kontestualizatzeko, hitanoan hitz egiteari erreferentzia egitean analisisian zehar gazteen artean eman den hurbilpena eduki behar da kontutan eta ez egunerokotasuneko ohiko erabilpen bat.

2.1 Zergatik erabili hitanoa? Hitanoari lotutako uste, balore eta jarrerak

Analisiarekin hasteko Eskoriatzako gazteek -profil honetakoek behintzat- penaz hartzen dute hitanoaren erabilera herrian txikia dela ikusteak. Beraien aburuz hitanoa galtzeko bidean dago eta honen adibidetzat jartzten dute gazteen artean, salbuespenak salbuespen, oso gutxi direla hiketari aritzen direnak.

Gauza asko daz baña kontziente naz hika galtzen lenengo belaunaldixa geu garela. Eta horrek bai esaten duzta holako... Eh... Dardara bat... edo... Gure esku dau, eztala... gure belaunaldixen esku dau hori galtzia. (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Aurrera eginez gazteen artean norberak hitanoan hitz egiteak “desberdindu” egiten duela beste gazteekiko ere komentatu da.

(...) ezberdintasun horrek, ezberdin izate horrek, berezi izate horrek emuten dotsa daukon plus hori (hikari). Nik uste dot be bai hortik datorrela be bai gure hikarekiko daukoun maittasun hori, “diferencia de personalidad”. Danok amarrañek jango bagauen eta batek “chuletas de cordero” ba “chuletas de cordero”. (Xabin. 26 urte. Eskoriatza)

Jente gutxik itten dauela (hikan gazteen artean) ta orduen... atenziñua... (Mikel. 22 urte. Eskoriatza).

Herrian gazteen artean hitanoan hitz egitean -hiztun gutxi dauenez- atenzioa ematen du. Hau da, kurioa egiten da “lehenagoek bezala”, beraiek

definitu zuten bezala, hitz egitea gazteen artean. Ikusi den moduan “plus” bat ematen dio hiketan aritzen den gazteari desberdin izate horrek.

Ozaitarekin (2014) lotuz, berak elkarrizketatutako gazteek ere hitanoan hitz egitean hau harrotasuneko bereizgarri bezala ikusten zuten -batzuk, beste batzuk lotsatu ere egiten ziren- hala ere badirudi leku desberdinetako gazteen artean elementu hau amankomunean aurkitu daitekeela.

Bestalde, beste lotura bat egitearren, Ortega et al-en (2014) ikerketaz hitz egingo dut. Euskalkiek -hizkera lokalek- gizartearen legitimate maila handia daukatela aipatu da eta hikaren kasua horren adibide izan daiteke zeren eta elkarrizketetan hikak ematen duen “plus” hori aipatzera-koan benekotasun maila handiago baten ondorio izan daiteke baita ere. Hau da, hitanoak -hizkera lokal bezala- benekotasun maila handia eduki dezakeela edo gazteek honela ikusten dutela. Honi loturik Leintz-Bailarako hitanoak estandarrekiko nahiko alde duela esan behar da (zioat vs jutsat). Alde honek identitate markatuago bat bultzatzen du.

Hitanoak desberdintasun hori eman arren gazteentzat egoera “ohiko” batean praktikatzeko duten gazteek ez dute inguruko gazte guztiekin hitz egiten. Hau da, beraiek ere jende konkretu batekin praktikatzeko dute.

Gauza bat behintzat, zela ez-touen ibiltzen normalien, ba.. bai da pertsona berezi batekin edo batenbat konkretuakin iten dozuna ta bai dauko... beste... konfiantza puntu bat... beste rolo puntu bat... (Ander. 28 urte. Eskoriatza).

Hitanoan hitz egiten duten “*pertsona berezi*” hauek normalean, osotasunean ez bada, lagunak dira eta familiako kide adinkide eta hurbilak. Esan daiteke, beraz, koadrila dela gazte hauek hiketa erabiltzen duten esparru nagusienetarikoa bat, beste zirkulu batzuek gain⁴. Honek gainera aurrean dagoenarekin (daudenekin) beste konfiantza bat sortzea ekartzen du.

Hitanoak beraz, batetik, “*desberdindu*” egiten ditu gazteak beste gazteetatik erabiltzean eta bestetik, hitz egiten den pertsona horiekin konfiantza handiago bat ematen du. Azken hau hitanoaren berezko ezaugarria delako -konfiantzazko tratamendua da- baina beraiekin bakarrik hitz egiten delako baita ere.

Aurrera eginez, hitanoak dituen erabilera arauen inguruan gazteek arau orokor edo ezagunenak ezagutzen dituzte -nagusiagoei hiketan ezin zaiela hitz egin adibidez. Beraz, badakite ezin dutela edonorekin erabili eta zukak ez dituen berezitasunak dituela. Arau hauek errespetatzen

**Hitanoak -
hizkera lokal
bezala-
benekotasun
maila handia
eduki dezakeela
edo gazteek
honela ikusten
dute.**

Hitanoak dituen erabilera arauen inguruan gazteek arau orokor edo ezagunenak ezagutzen dituzte. Beraz, badakite ezin dutela edonorekin erabili eta zukak ez dituen berezitasunak dituela. Arau hauek errespetatzen dituzte -esan bezala- beraien erabilera lagun, familikide edota ezagun adinkideetara mugatzen delako.

dituzte -esan bezala- beraien erabilera lagun, familikide edota ezagun adinkideetara mugatzen delako.

Honen harira beraiek etorkizunean seme-alabak badituzte arau hau -adibidez- apurtuko luketela onartu dute zeren eta beraien ustez hori da hiketa mantentzeko modu bakarra.

Gure semiek eztau iketako hikan guregatik ez bada. Konturatu barik gure ingurunia ia hika galtzen dabillega da foku txikitxak dauzela, foku hori ezpozu zuzenien bideratzen seme-alabei? Eztaue lortuko, guk ezto jaso zuzenien nahiz eta belarririk ba... iritsi jakun zerbaite. Gure ondorenguei etxake iritsiko guregatik ez bada. Osea, klase hori -arau jerarkiaz ari da- bai ala bai hikak apurtu in bi dau. (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

(Xabineri erantzunez) horko zentzuen egixa da guk ezpotzeu itten gure ondorenguei ezta ingo sekula. (Ander. 28 urte. Eskoriatza).

Badirudi transmisioan jartzen dutela pisu guztia eta honegatik guk -eta gure atzetik beste zenbaitek- ezagututako hiketaren arau nagusietako bat apurtzeko prest leudeke.

Gaian jarraituz Ozaita (2014) bere ikerketan hitanoaren barnean dauden botere harreman arauekin apurtzearen aldeko erantzunekin ere topatu zen elkarrizketatutako gazteen aldetik -guk orain aurkitu dugunaren antzerakoa baina modu orokorrago batean. Bere aburuz botere harremanetan oinarrituriko arau hauek apurtzearen aldeko jarrera marko handiago batean kokatu behar da: *“belaunaldi heldu eta gazteen arteko burruka bat dago, helduen arauak eta gazteen ikuspegiaren artekoa”* (2014, 101. orr.). Hau da, bere aburuz gaur egungo gazteriak ez du zentzuzko ikusten hikak barnean daukan botere harremanekin jarraitzea, bertako arauekin, egungo gizarte aldaturik dagoelako eta beste erreferente batzuk dituztelako.

Gurean, baita ere, egoera antzerakoa dela esango nuke. Gazteek arau hauek ez dituzte hain irmotzat ikusten -hitanoa seme-alabek ikasteko nahia egotetik aparte. Botere harremanekin lotura duten arau hauekin -klasea diosku elkarrizketatuak- apurtzea ongi dago.

Honetaz gain beste puntu garrantzitsu bat azpimarratuko dut. Alberdik (1993) aipatzen du hitanoa bereziki parranda eta festarekin lotzen dela.

Baña gero da be bai, zela itten douen kolokialmente, lagun artien, ba... dana... katxondeoz ba da... “Rollo” ona be bai ez? (Ander. 28 urte. Eskoriatza).

“Rollo” on batekin erlazionatzen dozu. Da justu gauza bat hezkuntza formaletik iges itten dauena da, guri formalismo danekin erakutzi doskue hedabide danak bestie... Bihurtu da arnagune bat eh... beste esparrutatik kanpo dauena. (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Beraz, Alberdiren (1993) tesia baieztatu egiten da hiketa jai edota serio-tasun gutxiko testuinguruetara ongi egokitzen dela esanez. Honetaz gain, hezkuntza formaletik ihes egiten du eta ondorioz kalearekin estuki lotu daitekeen tratamendua daukagula esan genezake. Beraz, jerga baten espazioa bete lezake, hark bezala konplizitate areagotzea eraginez.

Aurrera eginez -elkarrizketetatik jasotako informazioa kontutan hartuz- hitanoa irudiren batekin lotu beharko bagenu hau euskal mundu baserritarra izan beharko zen. “Baserri giroa”, “zaharra” eta “ohitura” asko errepikatu diren hitzak izan dira. Elkarrizketatuek euskara batua erabiltzen zuten hitanoaren aurkaria bezala, bata faltsua, edo faltsuagoa dela esanez, eta bestea berriz benetakoa edo beste modu batean esanda, purua, betikoa. Hitanoa baserria eta euskara batua hiria.

Azken hau oso loturik dago Ortega et al-en (2014) ikerketarekin baita ere. Euskara batua anonimoa da, sortua eta berdina da, eta denek hitz egiten dute. Hitanoa (euskalkiak) aldiz benetakoa, bertakoa, leku batekin identifikatzen da -denek ez dute berbera hitz egiten- beraz, autentikoa eta betikoa da. Ozaitaren (2014) ikerketan baita ere ideei hau plasmitzen da gazteek euskara batua “artifiziala” bezala ikusten dutelako; hika aldiz, lagunarteko hizkera bezala.

Hitanoa beraz ohituren parte bat bezala ikusten dute, hizkuntzaren zati bat da eta hasieran esan bezala pena bat -batzuen ustetan beti ere- berau galtzea.

Pentsau euskalkixen barruen ondiokan dauela beste bat. Osea... ikusi zelako katai luzia dan... (Ander. 28 urte.Eskoriatza).

Hau da hika -tratamendu “ezezagunagoa” izanik gazteentzat- euskalkiaren barruko beste hizkera bat bezala identifikatzen dute non norma-lean erabiltzen den euskalkia baino zaharrago eta historikoago bezala ikusten den. Gainera, eredu informaletarako oso aproposa dena.

Esan den bezala lotura zuzena egin da lehengo munduarekin eta elkarrizketetan ondorengo hitza agertu da: *Zakartasuna*. Ez dut uste kasualitatea denik adjetibo hori erabili izana hitanoa deskribatzeko⁵. Alberdik ere hitz hau jasotzen du euskaldunek hitanoari egozten dizkioten fama

**Hezkuntza
formaletik ihes
egiten du eta
ondorioz
kalearekin estuki
lotu daitekeen
tratamendua
daukagula esan
genezake. Beraz,
jerga baten
espazioa bete
lezake, hark
bezala
konplizitate
areagotzea
eraginez.**

Gazte batzuek hitanoaren bazterketa bat ikusten dute honen transmisio bat ez delako egon. Zergatik ez digute hitanoan hitz egin? Zergatik baztertu dute gurekin hitanoa hau hitz egiten dakien belaunaldi euskaldun oso batek? Gure gurasoek zergatik ez digute erakutsi?

txarreko hitz bezala baina kasu honetan zakartasuna erakargarritzat ikusten da.

Honetaz gain, gizarteak hitanoa nola ikusten duen ere hartu da kontutan eta hika euskal gizartean, euskaldunen aldetik, baztertua izan denaren ustea dago. Hau da, euskaldunek beraiek baztertu duten tratamendua dela hitanoa.

Porque len eurak, betiko egunerokotasunien ta ibiltten zauien. Baña gaur egunien ia etxaixat zegattik aldatu in dda gauzia ta euren artien bai mantentzen juek baña gaztienganako elkarrizketa baten edo hola ez. (Ander. 28 urte. Eskoriatza).

Euskal hiztunek... eh... baztertu in juek be bai etxaixat, es que hor dau... baztertu in juek. Bere (bere aitari egien dio erreferentzia) kuadrillan jarraiketan dok hikan itten baña sekulan etxako okurriru nire amai ittia, neuri ittia, nire arrebai ittia edo nire irakasliai ittia... edo nire lagunen bati ittia. Berak erabaki dau ze esparrutara mugatzia. (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Gazte batzuek hitanoaren bazterketa bat ikusten dute honen transmisio bat ez delako egon. Zergatik ez digute hitanoan hitz egin? Zergatik baztertu dute gurekin hitanoa hau hitz egiten dakien belaunaldi euskaldun oso batek? Gure gurasoek zergatik ez digute erakutsi? Planteatzen dut: eskolako eredutik, normatibotik, gehiago aldentzen zela uste izan dutelako?

Esango nuke, hipotesi bezala, balitekeela heziketa molde berriek hitanoaren gainbeheran lagundu izana. Egun, badirudi, gurasoen autoritarismoa ez dela lehengoa bezalakoa, hau da, familia barruan aurki genitzaizkeen jerarkiak zerbait difuminatu egin dira hau horizontalagoa eginez. Honek hizkuntzan ere bere eragina izango zuen seguru aski hau leunagoa eginez. Honi loturik, interesgarria izango zen ikertzea ea familia barneko harreman horizontal hauek zukari bultzada eman dioten.

Hitanoaren bazterketaren inguruan Alberdik (1993) diosku hitanoa euskaldun askok historikoki baztertu dutela honek zekarren konnotazio eta ospe txarrarengatik. Badirudi gazteek ez dutela hitanoaren inguruko ospe edota konnotazio txarrik jaso -ez dituztelako aipatzen- baina beharbada helduagoa den belaunaldi horiek bai jaso dituzte -auskalo.

Arrazoi eta kausa desberdinak egon daitezke baina argi dagoena da hitano hiztuna den belaunaldi batek hitanoaren transmisioa eten egin duela Eskoriatzan.

2.2 Eta zer diote nokaren inguruan?

Nokaren auzia ateratzean seguru aski hitanoa inguruan eduki duten gazte gehienek dakite hau zer den -emakumeei hitz egin behar zaien hika forma- oinarrizko arauak badakizkitelako hala ere, igertzen da noka nahiko urrun gelditzen zaiela.

Eskoriatzan hitanoaren erabilera orokorra, gazteen aburuz, gehien bat jende helduak egiten du eta hiztunak, beraien ustez, baserri girokoak izango dira normalean. Hala ere, heldu hauen artean generoari erreparatzen baldin bazaio onartzen da hitanoa gehiago entzuten dela gizonen artean, gizon-emakume edota emakumeen artean baino.

Generaziño bat holan... lenguek ez? Jente nausixak, ibiltzekotan hola egunerokotasunien behintzet. (Ander. 28 urte. Eskoriatza).

(Hika zein generok gehiago erabiltzen duen galdeturik) Gizonezkuetan. (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Eh... nik uste dot.. Baserri giroko jentia itten dauela euren artien. Gero, esan tzuten moduen, batzukin eztaue ingo baña... Bai, bai, bai azkenien eh.. esque mutillena entzuten da beti osea que.. Nik uste dot neskak, oso gutxik itxen dauela (Mikel. 22 urte. Eskoriatza).

Nokari dagokionean beraz erabiltzaile helduak egongo direla diote baina ez dela ohikoa hauei kalean hitz egiten entzutea⁷.

Gazteei erreparatuz, hauen artean ere mutilak direla erabiltzaile bakarrak esan dezakegu. Neskek ez dute erabiltzen eta neskek-mutilei ere ez da ohikoa erabiltzea. Hau esanik pentsa daiteke -ikerketak eduki ditzakeen hutsune guztiak kontutan hartuz- Eskoriatzan gazteen artean noka ez dela erabiltzen -oso gutxi erabiltzekotan- eta beraz helduen artean ematen den antzerako eredia errepikatzen dutela gazteek. Hau da, kalean entzun behintzat, toka egiten dela eta hau mutilen artean ematen dela salbuespenak salbuespen beti ere.

Azken honi helduz, badirudi mutilek zailtasunak dituztela nokan hitz egiteko eta modu batean esatearren bi aldiz pentsatu behar dute esan behar dutena nokan esan behar baldin badute. Toka aldiz, hobeto edo gaizkiago, errezagoa egiten zaie. Fenomeno hau hala ere ez da mutilen kontua bakarrik elkarrizketatutako neskak ere onartu zuelako berak egun toka egingo lukeela hitanoa erabili beharko balu, noka asko kostatuko zitzaiola hitz egitea:

Eskoriatzan gazteen artean noka ez dela erabiltzen -oso gutxi erabiltzekotan- eta beraz helduen artean ematen den antzerako eredia errepikatzen dutela gazteek. Hau da, kalean entzun behintzat, toka egiten dela eta hau mutilen artean ematen dela salbuespenak salbuespen.

**Noka mundu
pribaturantz
abiatu zela esan
daiteke eta tokak
mundu publikoan
iraun zuela.
Modu honetan
noka berez
galdurik ez
dagoen arren
galdurik dagoela
dirudi zirkulu
pribatuetan -
etxeko giroetan,
meza osteko
tertulietan-
mantendu delako
soilik.**

Nik uste dot askok eztauela jakingo dauela neskei zuzenketako ta mutillei zuzenketako modua. Es que... nik de hecho hori badakit baina.. nik uste dot oñ in biherko banau be mutillenera joko nauela (Libe. 21 urte. Eskoritza)

Badakit neska bat elkarizketatu dudala eta kasu bakarra⁸ dela baina Eskoriatzako beste neska gazteetara zabal daitekeen hipotesia dela pentsatzen dut. Hala ere, badirudi ez dela Eskoriatzako fenomeno soil eta sakabanatua, Ozaitak (2014) ere hau dioskulako Tolosaldeko nesken inguruan non hika “*erabiltzen duten gutxi horietako askok toka erabiltzen du*” (2014, 95. orr.). Gurean ere, neskek hika erabiltzen badute, antzerako egoeraren aurrean egongo ginatekeela pentsatzen dut.

Nokaren auzian beraz nokaren ezagutza -eta erabilera- eza identifikatu dezakegu -bai mutil eta nesken aldetik. Hala ere oso interesgarria da baita ere mutilen artean eman daitekeen beste zalantza bat, jasotako informazioaren arabera. Hauek nokan ez daukatela *norekin* hitz egin airtortzen dute.

(...) eztaukou guk.. noaz in nik ezto topau ondio neska bat o... ez jaten etorten burura in al dotzetena hikan eztakitzu? Eta... mutilletan en kanbio... bai dau bateron bat baño gehixau eztakitzu? (Ander. 28 urte. Eskoriatza).

Honek zer pentsa handia ematen du nire aburuz baita ere⁹.

Bestalde, nola heldu da noka honelako egoera batera? Galdera zaila da erantzuten hala ere gakoia -edo gakoetariko bat- emakumeen sozializazio esparruetan egon daiteke.

Emakumien sozializaziño guniek die komertziue edo mesa osteko tertulixak. Gizonezkuak die ttikiteuen dabitzenak, musien jolasten dauienak... eh... (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Lenauko gauza bat dala jakinda len mobiruten zana ta etxetik kanpo ibiltzen zana... Hori dana be gizona zan, orduen... horrekin igual lotura gehixau in dda (Libe. 21 urte. Eskoriatza).

Emakumeek sozializazio esparru gutxiago izan dituztela eta zituztenak mundu pribatu edo ezkutukoagokoak direla esan daiteke. Gizonen sozializazio esparruak aldiz, gehiago izateaz gain publikoak dira kalean ematen direlako. Honekin beraz, noka mundu pribaturantz abiatu zela esan daiteke eta tokak mundu publikoan iraun zuela. Modu honetan noka berez galdurik ez dagoen arren galdurik dagoela dirudi zirkulu pribatuetan -etxeko giroetan, meza osteko tertulietan- mantendu delako soilik.

Nokaren etorkizunaren inguruan, aldiz, hau Eskoriatzan, eta bailaran baita ere orokorrean gazteen artean salbuespenak salbuespen, beltz ikusten dute gazteek. Hitanoa gutxi erabiltzen baldin badute -toka kasuen ehuneko handi batean- nokaren etorkizuna oraindik txarrago da-goela diote.

Pronostiko bajua (Xabin. 26 urte. Eskoriatza)

Egoera honen atzean, kausa bezala, ezagutza eza kokatu daiteke -ez da erreferenterik egon- eta bisibilitaterik ere ez dauka nokak, non badirudien ez dela existitzen. Ozaitak (2014) – ez dakit Tolosaldeko gazteriar mugatuz edota esparru zabalago batera begira- ondorengo esaldi sendoa utzi digu: “*Noka jada azkenetan aurkitzen da, desagertzeko zorian*” (94. orr.). Ikerketa honetan baita ere Eskoriatzan -eta bere inguruetan seguru aski- etorkizunera begira pronostikoa -aldaketarik ez baldin badago- ere antzekoa izango dela uste dut.

2.3 Egunerotasuneko zailtasunak

Aurretik aipatu bezala, Eskoriatzan hitanora hurbilpena egin duten gazteek -orokorrean eta profil bat egitearren- hau ez dute beraien mintza praktikan eduki baina bai bizi izan dute inguruan -familian adibidez. Beraiek zuzenean jaso ez izateak eta zeharka eduki izanak hitanoaren inguruko jakintza osoa ez edukitzea ekartzen du. Ondorengo epigrafean gazte hauek zer egiten duten hitz egiterakoan zailtasunekin aurkitzen direnean azalduko da.

Hiketan hitz egitean eduki dezaketen zailtasun handienetako bat noka-ren ezagutza ez edukitzea da. Oso zaila egiten zaie eta neskekin -erabiltzekotan zeren eta ez da ohikoa- toka erabiliko luketela kasu gehien-tsuenetan argi geratu da.

Beste ohiko zailtasun bat hiketan aditz guztiak ez jakitea da eta beraz, puntu honetan, bi gauza gertatu ahal dira. Batetik, hitanoan aditza asmatu gutxi gorabehera izango denaren bat esanez, intuizioz, edota zuzen-kara pasa. Beraien elkarrizketetan eta kalean ikusi ditut, berez, forma egokiak ez diren aditzak¹⁰ aipatzen. Honen adibide hurrengo esaldia:

Baño ekin **gitzuanian**... (Xabin. 26 urte. Eskoriatza)

Adibide honetan alokutiboa ez litzateke erabili beharko. Honek beraien aldetik “ikasi” dutela erakusten du eta ez dutela, beharbada, erreferente argi bat izan. Aditz “asmatu” hauek -non beste batzuei entzun ostean

**Batek beste
norbaiti
hitanoan hitz
egin diezaiokeen
arren bigarren
honek beharbada
ez diola hitanoan
erantzungo.**

**Maiz ematen dira
batek hitanoan
hitz egin eta
parekoak zuka
erabiltzen dituen
egoerak.**

ikasi dituzten edota norberak asmatu- nahiko naturalizaturik daude egun.

Interesgarria da baita ere hiketa normalean erabiltzen duten esparrutatik ateratzea oso zaila egiten zaiela gazteei – hau da, koadrilatik kanpo hitz egitea adibidez. Jada oso konfiantzazkoak diren pertsonekin -edo hitz egiteko ohitura dutenekin- ez dute arazorik baina hortik kanpo “konplexua” dutela aitortu dute.

(Solosaldu bat hikan nahi baldin badute egin zein zailtasunekin aurkitzen diren galdetzen) Eta... errespetuz eztozula jokatu edo... eztaikit konplejo puntu batekin. Ni oiñ enoie Larraitengana ta “E ! Larrait! Aterako duztanan eh... zurito bat?” Ez? Eztaikit.

Kuadrillan adibidez eztaukot konplejorik, danak ulertzen duztie eta badakixe, nire kuadrillan danai eh... (...) Ta baten batzuk erantzuten justiek hikan (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Honi loturik garrantzitsua da gogoratzea aurrerago jarritakoa oin-ohar batean non Alberdik (1993) dioskun konfidantza maila handi bat ez dela derigorra hitanoan hitz egiteko¹¹. Gure kasuan badirudi zaila dela edonorekin -pertsona konkretu batzuekin ez bada- ohitura hartzea hitz egiteko.

Ondorengo galderak uzten dizkizuet honi loturik: baliteke hitanoa nire “kutunenekin” edota “nireganako gertukoenekin” erabiltzeko joera hau arrotzekiko “babes-muga” bat izatea? Hau da norberarekin hitanoan hitz egitea, modu batean esatearren, “irabazi egin behar dela”?

Honi loturik esan behar da -kuadrillan adibidez- batek beste norbaiti hitanoan hitz egin diezaiokeen arren bigarren honek beharbada ez diola hitanoan erantzungo. Hau ere gertatzen den fenomeno dugu. Batzuk beharbada animatu daitezke eta erantzun non poliki-poliki joan daitekeen ereiten hitanoan hitz egiteko ohitura -edo ez. Hala ere, maiz ematen dira batek hitanoan hitz egin eta parekoak zuka erabiltzen dituen egoerak¹².

Azkenik, egunerotasunean aurki dezaketen zailtasun hauei kontra egiteko, beraien teknikak garatu dituztela esan behar da.

Baño ekin gitzuanian, zati bat aditz guttiau esaten gittuan... Ba... asko jota igual ba... hik esango heukena igual “Ze, lo ondo in ddok?” ta hortan geratuko gitzuan baña politto politto ekin gaittuk beste aditz batzuk ibiltzen... ..Ta hartu juau ohituria adibidez beti ittia, soltura be hartu juau... etxaixat urten dok... eeh... urten dok... hori informaziño barrixa be bai. Bai, ta igual atentziñua jarri be bai entzuten zabitzenien baten batzuk eztakitzu? (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Behin hitz egitearen ohitura harturik eta, erabiliz, askoz ere errezago egiten da, eta gero eta aditz zailagoak erabiltzen dira. Honetaz gain, hiketari diren artean hauei entzutea ondo egoten omen da baita ere ikasteko. Beraz, ikasketa prozesuak eramaten dituzte aurrera, modu batean esatearren, zailtasun hauei aurre egin eta hobeto hitz egiteko.

Aurrera eginez, epigrafean atera diren ideia desberdinak lotuaz, nire iritziz gazteek hitanoa hitz egiterako orduan eduki ditzaketen zailtasun hauek lotura handia dute Ozaitak (2014) argitara ateratzen duen beste elementu batekin. Ozaitak (2014) dio Tolosaldean herri handietako gazteak hitanoarekin sozializatzen hasten direnean bailarako herri txikiagoetako gazteekin -azken hauek hitanoa jakin eta erabili egiten dute, lehenek ez-herri handietakoen artean “*hizkera esperimentazio*” (Ozaita, 2014, 88. orr.) edo hizkerarako -hitanoarako- “*gerturapen moduko bat*” (Ozaita, 2014, 89. orr.) ematen dela -ez derrigorrean ezagutza oso bat garatuz.

Gure ikerketan ikusitakoarengatik Eskoriatzan honelako zerbait ematen dela esango nuke baita ere. Eskoriatzako gazteak -eta beste leku askotakoak seguru aski- hitanoa hurbil baina honen transmisio zuzena ez edukitzerakoan honelako “*hizkera esperimentazioak*” egiten hasten dira eta saiakera horietatik datoz “*gitzuanian*” bezalako aditzak -hitanoa ondo kontrolatzen ez dutenaren seinale- eta ikusitako ikasketa prozesuak¹³.

Puntu honetan gogora ekarri nahi ditut Kasaresek (2014) eginiko ekarpenak. Orain arte transmisio hitza bere adiera ohikoenean erabili da ikerketan, atera egin delako, baina orain ikusitakoak erakusten du goitik-behetiko transmisioa ez dela derrigorra hitanoaren erabilerarako gazteen artean. Ikusi dugu hitanoak dituen ezaugarriengatik hau zerbaitetik definitzen badu bere horizontalitatea dela, berdinen artean hitz egiten dela hain zuzen. Eskoriatzako kasuan ikusi da lagun batek beste bati hitanoan hitz egiten badio honek erantzun ahal diola hitanoz baita ere eta esan bezala erein daiteke hitanoan hitz egiteko ohitura -hau txikia bada ere. Tolosaldean ere antzerako egoera dugu sabuespenak salbuespen. Herri txikietakoz gazteak -hitano hiztunak- herri handietakoekin batzean -hitano hiztun ez direnak- azken hauen artean hitano-ranzko hurbilpen bat ematen da. Beraz, honekin esan nahi dudana da, gurasoengandik seme-alabenganako transmisiorik egon ez den arren, hitanoa gazteek beraien artean ikasi dezaketela hitanoak ezaugarri nagusi duen horizontalitate eta simetriarengatik¹⁴.

Eskoriatzako gazteak hitanoa hurbil baina honen transmisio zuzena ez edukitzerakoan honelako “hizkera esperimentazioak” egiten hasten dira eta saiakera horietatik datoz “gitzuanian” bezalako aditzak.

Hitanoak bazterketa instituzionala pairatu duela esan daiteke gazteen aburuz.

Arlo publikoek egin dezaketenaz gain herri mailako euskara elkarteetan ere jarri da fokua. Esparru bat behar da hiketan aritzeko herrian eta esparru hau antolatzeo derrigortasuna herriko elkarte desberdinek dute.

2.4 Zer egin daiteke hitanoa bultzatzeko?

Epigrafe honekin hasteko lehenik gazteek ez dute arazorik ikusten euskaldun berri bat -edota euskara ikasten ari den edozein- hitano hiztun bilakatzeko. Hau da, edonor hel daiteke hitano hiztun petoa izatera. Hau puntu garrantzitsua da nire ustetan¹⁵.

Zer egin da -edo ez da egin- hitanoa gaur egun dagoen egoerara heltzeko? Galdera honi erantzunez instituzioek eramaten dituzte kolpe gehien. Instituzioek ez dute hitanoa bultzatu areago, baztertu egin dute. Hezkuntzan hitanoak lekurik ez daukala pentsatzen dute gazteek:

Aditzen batzuk ero itxeko holan... baña... ez, ezta (landu) (Mikel. 22 urte. Eskoriatza).

Hau esanik hitanoak bazterketa instituzionala pairatu duela esan daiteke gazteen aburuz. Honetan ere beste berdintasun bat aurkitzen dugu Ozaitak (2014) elkarrizketatutako gazteekin, hauek ere hezkuntza ibilbidean “oso gutxi jorratu dutela” (2014, 100. orr.) diotelako. Honek ez du esan nahi batua alboratzen dutenik beharrezkoa ikusten dute, baina orekarik ez dela egon salatzen dute¹⁶.

Instituzioek hitanoa -gure ikerketari begira- hauspotu beharrean euskara batua hauspotu dute eta honen kaltetan hiketa -eta euskalkia(k) baita ere- baztertu egin d(ir)a.

Baztertu ein dda bai... Euskaltzaindian partetik, eztauelako iñola be sustatu, ez euskalkixa be ez ta sustatu, ikastolaren sorreratik bultzatu da eh... hizkuntz eredu bat irakasle danak Almenen, Luis Ezeizan (Eskoriatzako ikastola eta eskola publikoa dira) eh... euskara batue itten auen, euskalkixa zuzen erabiltzen eztagigu. Euskalkiko aditz mordua galdu inttugu, zer esango ia hikana... (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Eztakit eh.. igual ikastoletan behintzet... euskeran gaian barruen behintzet eh... eztakit gehixau sakondu hika oh... (Mikel. 22 urte. Eskoriatza).

Hitanoa da ikerketaren gaia baina esan behar da egunerokotasunean erabiltzen zuten euskalkia ez zutela ondo hitz egiten esaten zutela -aditz asko galdu direla lehendik hona, ez zekitela euskalkiko euskaran idazten... Badaukate batua, guztiok elkar-ulertzeko, baina hori lortzeko prezio altu bat ordaindu behar izan dute, hitano eta euskalkia. Edo beste modu batean esanda, lokalak diren hizkerak¹⁷. Honegatik “euskaldun oso” ez direla sentitzen dute.

Arlo publikoek egin dezaketenez gain herri mailako euskara elkarrekin ere jarri da fokua. Esparru bat behar da hiketan aritzeko herrian eta esparru hau antolatzeko derrigortasuna herriko elkarte desberdinek dute. Hitanoa erabiltzeko edozein aitzaki da erabilgarri eta helburua eduki behar da kontutan.

Euskara elkarte bat da, bale, euskararako pausoak sustatzen dituenen baña era berien euskaraz itteko inguruniek sortzen dituenen. Horregaitik euskara elkarte batek antolatzen dau eh... ogi ikastaroa, ez euskara eta ogia uztertuta dazelako, ikastaroan agertzen dien hamabi pertsona horreik gune euskaldun baten dazelako. Hikak euki biko littuke, ba holako eztaikitx, ogi ikastaroa eta hika. "Oghikastaroa"... (Xabin. 26 urte. Eskoriatza).

Azken finean euskara ikasten ari den edonork praktika dezake kalean edozein momentuan, bai batua edota kalean erabiltzen den euskalkia. Hika ordea -denarengatik eta berez daukan ezaugarriengatik- ezin da kalean edozeinekin edozein momentuan praktikatu. Beste zailtasun batzuk aurkitzen ditugu, horregatik honelako esparruak garrantzitsuak, egokiak edota beharrezkoak ikusten dira hitanoa bultzatu nahi baldin bada.

3. ONDORIOAK

I

Azkenean ikerketaren amaierara heldu gara. Ondoren ikerketatik atera ditudan ondorio nagusiak aurkeztuko dira. Esan behar dut ikerketa leku konkretu batean -Eskoriatzan- finkatu dudan arren jarraian datozen ondorioak -Eskoriatzan egon daitezkeen berezitasunak kenduta- beste kokapen batzuetan eman daitezkeela nire aburuz baita ere eta beraz antzerako egoeretakoa kasuak azaltzeko ere balio dezaketela. Azken hau beti ere tartean egon daitezkeen salbuespen eta desberdintasunak kontutan izanik.

Bestalde, kontutan eduki behar da teoria eta benetako praktikaren artean egon daitezkeen aldea. Nik hemen idatzitakoak teorikoki errealitatea islatu nahi duen arren praktikan nabardurak egon daitezke. Hau esanik, aurrera.

3.1 Beraz, zer gertatu da Eskoriatzan?

Ikusi eta irakurritakoarengatik kontutan hartu behar da gazteen artean *behar* bat dagoela -edo sortzen dela- "kaleko" hizkeran hitz egiteko, modu espontaneoan hitz egiteko, edota beraien artean adarra jotzeko hizkera aurkitzeko¹⁸ 1. Euskararen funtzio hauetariko batzuk hitanoak betetzen ditu: kohesio ahalmen handia du; konplizitate-zantzuak eta umore-kode berezkoa dakartza harremanera besteak beste.

Bestalde, ez da ahaztu behar hitanoaren ezaugarri nagusienetarikoa simetrikoa izatea dela eta, beraz, berdinen artean hitz egiten dela. Honi loturik Kasares (2014) gogoratuz ikusi da nola egun horizontalitatean zabaltzen den tratamendua ere badugula hitanoa.

Elementu hauek uztarturik, beharra batetik, berdinen artean hitz egiten dela eta horizontalitatean ikasten dutela askok, nik esango nuke erraz *kutsatzen* den tratamendua dela. Zergatik *kutsatu*? Norbaitek -gazte batek gure kasuan- lagun batekin erabiltzen baldin badu aurrekoak -beharbada- hitanoz erantzungo diolako. Bestela hurrengoan zerbait esango dio, bere esaldia txikia bada ere. Honela poliki-poliki "hedatuz" joan daiteke bere erabilera -gure kasuan- esaldi batzuetara edota gero eta solasaldi luzeagotara.

Ozaita (2014) konturatzen da honetaz baita ere, eta berak "itsaskor" (2014, 88. orr.) hitza erabiltzen du Tolosaldeko herri handietako gazteak lehen harremana dutenean hitanoarekin herri txikietakoekin elkartzen direnean. Hau da, beraiek ere hitanoa erabiltzen hasten direnean -hurbilpena egiten dutenean alajaina- nolabait *kutsatuta* edo *itsasi* egiten direlako da, erabiltzen dutenengatik.

Gure ikerketa eremuan desberdintasunak handiak dira Tolosaldearekin alderatzen badira baina Eskoriatzan eman den fenomenoaz azken honekin alderatuko daitekeela pentsatzen dut. "*Kutsadura*" ez da beraz berez ematen den fenomeno; funtsean *behar* bat dagoelako ematen da. Noski hau, hala ere, bere muga guztiekin ematen dela eduki behar dugu kontutan: hitanoaren jakintza mailaren muga gure kasuan kontutan eduki beharreko elementua da, ezagutza ez delako oso handia. Honek nire iritziz erakutsi dezake zergatik mugatzen den esaldi gutxi batzuetara. Jakintza handiagoa baldin balego hitanoaren erabilera handiagoa izango zela pentsatzen dut.

Bestalde, hitanoari egozten zaizkion baloreak -antzinatasuna, historia, baserria...- seguru aski ez dute honen erabileraren aurka joko -hiztunaren arabera beti ere. Honetaz gain, garrantzitsua da hitanoak ematen duen konfidantza aurrean dagoenarekiko eta ematen duen "berezitasuna" besteekiko gazteen ikuspuntutik.

Aipatutako azken hiru ezaugarri hauek -"berezitasuna", baloreak eta konfidantza- bigarren maila batean kokatuko nituzke erabilerari dago-kionean. Hau da, gazte gutxik hitz egingo dute hitanoa hasiera baten ezaugarri hauengatik, nire aburuz, lehenik *beharra* aurkitzen delako ematen baita berarekiko hurbilpena. Honek, hala ere, ez du esan nahi

ezaugarri hauek hasieran emandako *kutsadura* edo hurbilpen hori ez dutenik indartuko. Adibidez, norbait hasi daiteke hitanoan hitz egin nahian esaldi gutxi batzuk esanaz eta konturatu “bereiztu” egiten dela beste gazteetatik. Honela “bereiztea” gustuko badu gehiago erabiliko du. Kontziente naiz indartze hau, hala ere, beti norberaren arabera izango dela.

3.2 Eta etorkizunean, zer?

Argi dagoena da, eta Ozaitaren (2014) ondorioarekin bat nator honetan, hitanoak jarraitu behar baldin badu hau beronek funtzio bat betetzen duelako dela. Gazte askok dute gustuko eta ez dute nahi galtzea hala ere “*hitanora gazte berriak gehitu badira berarekin bilatzen duten funtzio ezberdinduagatik da, hots, egoera informaletarako aurkitzen dioten baliagarriatasunagatik besteak beste*” (Ozaita, 2014, 100. orr.). Batzuk hurbil daitezke erromantikoki berarengana -eta askok gustuko dute bere soinua etab.-baina hau seguru aski ez da nahikoa izango jarrai dezan.

Honetaz gain belaunaldien arteko “arau apurtzearen” inguruan nahi dut hitz egin baita ere etorkizunera begira garrantzitsuak izan daitezkeelako hemen eman daitezkeen aldaketak. Badirudi gazteek jarrera ireki bat dutela hitanoaren erabilerarekiko, hau da, “*garaiko arau sozialak*” (Ozaita, 2014, 101. orr.) erantsi dizkiote eta beraz, edonorekin hitz egin dezaketela uste dute, parra zaiela nor duten aurrean. Hau da, hitz egiterako orduan berdintasunean sinesten dute eta etorkizunean beraz, guztiok guztiekin hitanoan hitz egiteko egoeran aurki gaitzke. Egun, ez gazteek bakarrik, jende heldu batzuk ere esango nuke -ez denak noski baina batzuk bai- jarrera zabala dute gai honekiko eta ez dute gaizki ikusten hitanoaren erabilera zabaltzen joatea denon artean.

Puntu honetan derrigorra iruditzen zait esatea Joxerra Garziak Berria egunkarian idatzitako artikulu bat irakurtzea gomendagarria dela guxtienez gaiari bi buelta emateko. Garziaren tesia ondo ulertu baldin badut berak dioskuna da hitanoa zerbaitek egiten badu erakargarri edo berezko honek “*kidetasuna*” markatzen duelako dela. Beste modu batean esanda hau inguruko “*guztiekin*” (aitarekin, amarekin, irakaslearekin, lagunekin...) hitz egiten baldin bada bere funtzioa galduko luke zuzenean “*kidetasuna*” ez zuelako markatuko, berdinen artean -kideen artean- ez zelako hitz egingo soilik.

Ez naiz aditua eta ezin dut esan zein jarrera den egokiena etorkizunera begira azken gai honekin ea “betiko” arauarekin jarraitu behar den hala

Gazte askok dute gustuko eta ez dute nahi galtzea hala ere “hitanora gazte berriak gehitu badira berarekin bilatzen duten funtzio ezberdinduagatik da, hots, egoera informaletarako aurkitzen dioten baliagarriatasunagatik besteak beste” (Ozaita, 2014).

Baliteke belaunaldi gazteek eduki dezaketan erromantikoki bat izan litekeela hitanoaren arau berriak finkatuz joatea.

Ikusi da nokaren erabilera gazteen artean orokorrean oso baxua dela salbuespenak salbuespen. Eskoriatzan aldaketarik ez baldin badago behintzat, noka galdu egingo da.

hauek apurtzea den egokiena. Seguru aski erantzuna erdi bideren batean egongo da hitanoak bere funtzioa galtzen baldin badu erabilerak behera egingo duelako eta gizarteak arauen gainean aldaketak eskatzen dituelako. Hala ere, baliteke belaunaldi gazteek eduki dezaketan erronketa-riko bat izan litekeela hitanoaren arau berriak finkatuz joatea.

3.3 Tokanoka tribua Toka tribua bihurtzeko arriskuan da

Ikusi da nokaren erabilera gazteen artean orokorrean -ez Eskoriatzan bakarrik- oso baxua dela salbuespenak salbuespen beti ere. Ozaitak (2014) dio gazteen artean “*ia-ofizialki*” (2014, 100. orr.) desagerturik dagoela eta Eskoriatzan -guztiz ez esatearren- antzerako egoeran gaudela esango nuke. Aldaketarik ez baldin badago behintzat, noka galdu egingo da.

Hau esanik jarraian etorkizunera nahi dut begiratu. Nire iritziz bi egoera aurki ditzazkegu etorkizunean egungo gazteek noka ez badute mantentzen. Lehena neskek beraien artean eta mutil-neska artean toka erabiltzea izango litzateke. Badirudi egun egoera hau hasia dela ematen beraz, herri edota bailara desberdinetan etorkizunean modu ohiko batez eman daitekeen fenomenoia izan dezakegu hau.

Honetaz gain noka galdu eta hitanoak -toka teknikoki- presentzia asko ez daukan herri edota bailaretan gerta daiteke emakumeek hau ez bereganatzea. Egoera honen aurrean hitanoa -toka- maskulinitatearekin lotuko den tratamendua izango da. Honen inguruan Begoña Echeverria (2001) mintzatu da non gaur egunean ere hitanoa maskulinitatearekin lotu daitekeela esaten duen. Beraz, egun hitano eta maskulinitatearen arteko loturak ahal baldin badira egin, noka galtzen baldin bada eta hitanoa mutilek bakarrik erabiltzen baldin badute zer esanik ez.

3.4 Amaitzeko, bi ideia

Amaiatzen joateko ikertu ditudan gazte batzuk hitano hiztun berri bezala definitu daitezkeela esango dut (Ozaitak (2014) ere erabiltzen du terminoa). Badirudi badagoela betiko esaldi edota formula errazetatik zailagoetara pasatzeko asmoa eta, ikusi den bezala, beraien ikasteko formulak -nire iritziz- beste hizkuntza bat ikastea nahi dugunean erabiltzen ditugunak dira. *Listening* egiten dute, dakitenen artean entzuten saiatzen dira ondoren beraien ikasteko, eta lotsa kenduaz *speaking*- ean ere formula zailagoak nahi dituzte sartu.

Beraien kabuz beraz, aurrera egiten saiatzen dira hitano maila hobetzen joateko egindako ikasketa eta hizkera esperimentazio pertsonalekin.

Bestalde, ikusi da instituzioen aldetik hezkuntzan ez direla hitanoa eta hizkuntza lokalak ezer landu. Honek zer pentsa ematen du. Ozaitak (2014) dio (hitanoan pentsatuz) gaiaren gaineko gogoeta bat beharrezkoa dela eta bat nator berarekin.

Nire aburuz hezkuntza eta herri elkarteetan orain aipatutako *listening* eta *speaking* egiteko esparruak sortu beharko liritezke. Berandu ibili arren uste dut oraindik garaiz dabiltzala egoera hobetzeko. Hala ere, esparru hauek hitanoak berezko daukan informalitatea, kaleko izakera, eduki beharko luke, hau da, ohiko hezkuntza formaletik urrundu beharko litzateke. Honelako esparruek gazteen artean hitanoaren erabilera handiagoa izatea ekarriko dutelakoan nago. ●

OHARRAK

1. Gazteleraz hiruko taldeari “Grupo Triangular” deitzen zaio.
2. Hemen azaldutakoaren adibide argia da euskaldun askok -etxean euskara jaso arren- gazteleraz hitz egiteko daukaten ohitura. Edo baita ere etxean euskara ez jaso arren euskaltegira doazenak euskara nahi dutelako ikasi. Ama hizkuntzak beti baldintzatzen du - eta hori ez dut zalantzan jarri nahi- baina ez da determinantea ondoren hiztun horrek edukiko dituen hizkuntza ohituren inguruan. Faktore gehiago hartu behar dira kontutan orain azaldu nahi izan den bezala.
3. Joera hau hala ere Europako hizkuntza handietan -Gaztelanian, Frantzesean...- eman da gehienbat, ez euskarari. Alberdik (1993) honakoa diosku: “*Salbuespenak-salbuespen, gaur egungo euskarari, zoritxarrez, ez dugu somatzen elkarrekin T orokortzeko joerarik eta are gutxiago T-ren aldeko ordezkatzeko prozesurik*” (Alberdi, 1993, 7. orr.)
4. Elkarriketatu batek aitortu zuen ezizan hastean hasi zela hitanoa erabiltzen. Ehiza taldekoek hizkuntza hitz egiten zuten eta bera -bere adinkideekin- ere poliki-poliki hitanoa erabiltzen hasi zen. Egun hitanoa nahiko modu ohiko batez erabiltzen duen gaztea dugu
5. Zakartasunak, nire aburuz, zaharrari egiten dio erreferentzia -primitiboari behar bada baita ere- eta ondorioz benekotasunari. Batek Neandertal hitza erabili zuen zakartasuna entzun eta segidan. Behar bada baliteke ohituta gauden zuka euskalkia baino zakarragoa izatea forman, ez dakit, hala ere ez dut uste kasualitatea denik hitz hori erabili izana.
6. Oso esanguratsua da hemen aurkitutako ikuspegia zeren eta gurasoek beraien artean hikan hitz egitea Alberdiren (1993) arabera arau orokor moduan ez da eman -beti ere salbuespenak salbuespen. Euskara erabiltzen duten bikote erlazioetan normalean errespetuzko tratamendua (V-V) hitz egin delako. Kasu honetan badirudi hori ez dela kontentplazten eta dirudienez -ez naiz ausartzen modu kategoriko baten esatera- ez zen oso harrigarria izango gurasoetarikoa batek besteari -edo biek beraien artean- hitanoan hitz egingo balute. Honek nire aburuz lotura dauka lehen hitz egindakoarekin, hau da, gazteek hitanoaren barneko botere arauak zentzuzko ez ikustearekin
7. Elkarriketatu batek esan zuen kalean noka ez entzuteak ez duela esan nahi mundu pribatuan hitz egiten ez denik.
8. Gure ikerketan elkarriketatutako nesken egoera “berezia” dela esan dezakegu hitanoa eduki duelako bere inguruan baina toka erabiltzaileak eduki dituelako soilik. Arrazoi honegatik toka errezagot hitz egingo lukeela adierazi zuen noka hitz egitea baino.
9. Zenbateko konfidantza behar da norbaitekin -neskekin kasu honetan- hitanoan hitz egiteko? Galdera hau etorri zitzaidan burura momentu hartan. Alberdik (1993) esaten digu “*adiskidetasuna ez dela ezinbesteko baldintza hika hitzegiteko*” (1993, 13. orr.). Hemen esandakoak gaur eguneko neska-mutilen arteko harremanak nolakoak direnen seinale da nire aburuz. Konfiantza egon edo ez badirudi neskei hitanoan hitz egitea asko kostatzen den zerbait dela, harresi bat dagoela eta, nire iritziz, egun, hauen artean -mutil-neska ar-

tean- ematen diren harreman motak izan daitezke honen erantzule. Genero berdinekoari errazago hitz egiten zaio hitanoan -Alberdiren (1993) hitzak gogoratuz- beraz, badirudi, generoak berez “betidanik” zailtzen duela hitanoaren erabilera. Hala ere, egun aurki dezakegun aldea Alberdik aipatutakoa baino handiagoa dela esango nuke

10. Forma egokiak ez erabiltzea dirudienez nahiko ohikoa da gazteen artean. Xabier Azkuek (2000) Zumaiako gazteek aditz formak ez dituztela errespetatzen diosku baita ere.

11. Kasualitatea izan liteke baina elkarrizketatuak adibide bezala neska bat jartzen du.

12. Alberdik (1994) diosku simetrikoak diren hiztunen artean -koadrila lagunak adibidez- hitanoz mintzatzen ez denari besteak hitanoz hitz egiten badio elkarrizketan T-V beharrean V-V forma nagusituko dela -orokorrean. T-Vk asimetria edo botere harreman faltsu bat sortuko luke eta V-Vk aldiz “desegokitasun” hori alde batera utzi -simetriara itzuliz berriro ere. Nire aburuz hau honela da eta ez dut zalantzan jarri nahi. Hala ere gazte batzuk -ez denak, noski- parekoak hitanoz ez diela erantzungo jakin arren -beharbada itxaropenarekin edo- kasu batzuetan ere erabiltzen dute. Baliteke Ozaitak (2014) esandako belaunaldi aldaketaren ondorio izatea, ez dakit.

13. Ikus daiteke nola Tolosaldeko herri handietako gazteek hitanoa “zeharka” duten herri txikietako gazteen ondorioz. Eskoriatzan aldiz gazteek hitanoa “zeharka” daukate helduei beste zirkulu batzuetan entzunik. Hitanoa zeharka edukitze honek, nire ustez, antzeko egoerak sorrarazten ditu hitanoaren ikasketa -eta erabilera- prozesuari dagokionean. Hala ere, Tolosaldeko herri handietako gazteek desberdintasun **handi** bat dute Eskoriatzakoe-kiko: hauek horizontalki ikasten dutela, beste lagunak bitartez. Zentzu honetan “zeharka” eduki arren Eskoriatzan baino modu zuzenago batean daukate egunerokotasunean, hitz egiteko aukera gehiagorekin.

14. Xabier Azkuek (2000) diosku Zumaiako gazte gehiagok ikasi duela hitanoa lagunak artean etxetik baino.

15. Garrantzitsua iruditzen zait ikusi den bezala autentizitate maila hain altua daukan hika hitz egitera edonor heldu daitekeelako eta ondorioz “autentiko” izatera baita ere. Hau da, euskaldun petoa izateko ez dago zertan euskaldun zahar -etxetik euskara jasotako- izan beharrik.

16. Honen harira derrigorra da aipatzea, Ozaitak (2014) jasotzen duen moduan, Azpeitia eta Zumaian hezkuntza arloan gazteekin egin diren hezkuntza plangintzak hitanoa bul-tzatzeke.

17. Ez dut uste kasualitatea denik nik hitanoaren inguruan galdetzean hauek beraiek erabiltzen duten euskalkia -zuka- sartzea baita ere saku berean. Azken finean biak mugitzen dira hizkuntza lokala eta autentizitatearen ardatzean. Badirudi beraz, gazteek hezkuntzari euskararen hizkera lokalak -modu orokor bateagoan esanez- eskatzen dizkietela hizkuntzaren esparru guztiak bereganatzeko.

Gai honekin batera gogora ekarri nahi dut zer gertatu zen Eskoriatzan hitano ikastaroa egin zenean. Ikastaroko irakasleak egunerokotasunean erabiltzen den -zuka- euskalki maila nahikoa ez zegoela adierazi zuen eta lehenik hitanoa ikasteko bestea ondo ikasi behar zutela. Beraz, esan daiteke hizkera lokalek duten indarrak gain benetako “hutsune” baten aurrean egon gaitzkeela gazteekin hizkera lokalei dagokienean.

18. Esan behar dut euskal soziolinguistikan alderdi hau -gazteak, ahozkotatuna eta adierazteko moduak- landu duten ikerketak badaudela.

BIBLIOGRAFIA

Liburu eta artikuluetatik jasotako informazioa

Alberdi, Xabier. (1993). Hikako tratamenduaren balore sozio-afektiboak.

Fontes Linguae Vasconum, 64zkoa, 425-442.

Azkue, Xabier. (2000). *Hitanoa Zumaian*. Zarautz: Zumaiaiko udala

Echeverria, Begoña. (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 7 zkoa, 339-363.

- Kasares, P. (2014). Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 94 zkia, 13-45.
- Martinez, Carlos. (1993). *Casa, provincia, rey: Para una historia de la cultura del poder en el País vasco*. Irun: Alberdania.
- Ortega, Ane. Amorrortu, Estibaliz. Goirigolzarri, Jone. Urla, Jacqueline. Uranga, Belen. (2014). Nuevos hablantes de euskera: identidad y legitimidad. *Digithum*, 16 zki, 86-97.
- Ozaita, J. (2014). Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 91 zkia, 83-103.

Internetetik jasotako informazioa

- Alberdi, X. (1994). Hitanoa nork eta nola erabiltzen duen. *Euskera*. XXXIX zkia, 983-993.
- Eskuragarri: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49990.pdf>.
Begiratua: 2016/03/04
- Garzia, J. (2016/03/12). Hiri berorikan egingo dizut. *Berria*. Eskuragarri: http://www.berria.eus/paperekoa/1955/019/001/2016-0312/hiri_berorika_egingo_dizut.htm. Begiratua:2016/04/02.